



## 1. SAIOA

- Proiektuaren aurkezpena: prozedura, helburuak.
- Metodologia azaldu: Egutegia, egun bakoitzean zer, nola, etab. Proiektuaren faseak deskribatu.
- Ebaluazioa azaldu.
- Taldeen eratze eta antolatzea: Kontratu bete, Akten txantiloien funtzionamendua azaldu.
- Taldekideen rola/funtzioak banatu (4-5 taldekide dira):
  - Koordinatzailea: aktak bete, denen lanak koordinatu, irudikapena diseinatu, ideiak aurreikusten...
  - Ikerlariak:(hamarkadaka banatu ikerlari funtzioak). XIX. mendeko industri iraultzak ekarritako aldaketak batetik eta XX. eta XXI. mendeak hamarkadaka banatzea gomendatzen dugu
  - Ikt:
- Posible bada Black Mirror hasi.

## 2. SAIOA

- Telesaila ikusi: Black Mirror

## 3. SAIOA

- Ikerketaren hasi (hamarkadaka banatu ikerlari funtzioak)
- 1. fasea. Informazio bilketa:  
**Hamarkadaka** gertatutako **aldaketa/garapen teknologiko garrantzitsuenak** bilatu: zer, non, zergatik, nola, etab. Ereduak komentatu eta esan eremu guztiak kontuan hartzeko: lan katea, produkzio sistemak, komunikabideak, zientzia aurrerapenak, informazioaren zabalkundea, aurrerapen teknologiko garrantzitsuenak...
- Kronograma partekatu batean // Industrializaziotik gaur egun arte.
- Akta bete -> koordinatzaileak

## 4. SAIOA

- Ikerketa segi. (eremuka banatu ikerlari funtzioak)
- 1. feedback-a: Kronograma partekatu.
- Aldaketa teknologiko horiek **hainbat eremutan** izandako **eragina** aztertu: (komunikazioa, inteligentzia artifiziala, medikuntza, harremanak, kultura, hizkuntza, globalizazioa, moda, hezkuntza, banaketa soziala, herrialde zapaltzaile-zapalduak, musika, lan mundua, politika, erresistentzia guneak). Nork, zer, nola, zergatik, arazoak, alde onak, abantailak eta desabantailak (zeintzuk, nolakoak, norentzat) etab. Begi kritikoa
- Akta bete -> koordinatzaileak

## 5. SAIOA

- Ikerketa segi.
- **Eremu jakin bat hautatu** eta ikertu garapen/aldaketa teknologikoen eragina eremu horretan denboran zehar. Informazio bilaketa: **Azterketa sakona** (eremuan eragina izan duten kronogramako garapen teknologikoak hautatu eta aztertu denboran konparaketa:lehen/orain, aldaketaren arrazoiak, ondorioak, alde onak/alde txarrak, ahal beste ikuspuntu kontuan hartuz). (banatu lana ikerlariek)
- 2. feedbacka: bilatutakoa partekatu, bateratu, loturak egin. Gaur arte eta orainari garrantzia emanez: egungo egoeraren deskribapena, aurreko eremuekiko, eta bereziki hautatutako eremuarkiko.
- Akta bete -> koordinatzaileak

## 6. SAIOA

- Proiektzioa.
- Hemendik aurrera zer? **Aurreikuspenen eztabaida** taldean//Brainstorming. Koordinatzaileak atera diren ideak hartu.
- Hautatutako eremuko egoera futurista bat pentsatu/diseinatu. Baliabidea hautatu (aurreko saioetan pentsatzen joan direnaren harira) eta gelaz kanpo gauzatu (bideo, antzerki, irudien bidezko aurkezpena, aurkezpen informatiboa, komikia...)
- Lan hori nola eramango den aurrera antolatu
- Akta bete -> koordinatzaileak

## 7.8.9. SAIOAK

Aurkezpenak.: talde bakoitzak 15 minutu ditu